





IZARRA  
ANTZERKI-  
SALLA



10'g. zenbakia



IRURETAGOYENA'TAR J.

# GAU-OSTATUA

ATAL BATEKO ANTZERKIA



DONOSTIA'N  
MARTIN, MENA Y C.<sup>OS</sup> EN ESTEBA  
Fuenterria, 14, buko gulan

1921

Ogine lan 5

KTV  
23340

BEAÉ DIRAN BAIMENAKIN

ESKUDUNA: GREGORIO DEL AMO





# GAU-OSTATUA

## IRUDIGILEAK

Eramun.  
Okeña.  
Josetxo.  
Udalburua (alkatea)  
1'go gizona.  
2'g. gizona.

Iruditegian, apainduririk gabeko bizilekua, gela-antzeko sukaldea. Ikuslearen ezkefera, zelai-aldera irikitzen dan leioa, ta uřena suburu ta kezuloa. Eskubi-aldera, gelarako, atea. Ikuslearen auzez-auze, atariko atea. Sukalde-bařuan mai, zizatu, jafleku ta aulkiak. Sukaldeko sutondoan argiontzi bat ingi gořiaz lasai-lasai biraturik eta bere gañean ikatza bakan xamar zabaldu-rik jařita, sua ederki idurikatzen da. Udalburuakin datozen gizonak bikañak izan bitez.

## I

### JOXETXO leioan

Jox. ¡Auxen da au gau beltza! Ortze zabaleko ilařgi mařgořoak eztauka bestetako ařgi gořiskarik, eta ainbeste izafetatik, bat beraren dizdizik ezta ageri. Mendi ta zelai aldeak ixilpe gořean daude. Ikulora laisterka dijuan uřutiko aberen baten txintxaři ots nastu bat besterik ezta entzuten eta bera ere noizetik noizera bakařik. ¡Legořa bai dala bakaf-tasuna! ¡Au xomořo keskatsua sořtzen du bularpe one-tan! Udabeřian egun abara ařgiz apaindurik, baso, belar-di ta mendi galurari, bere edertasunakaz musuka asten danean, jořduan izaten da atsegingařia basarře auetan

bizitzea, uruti, txit uruti gizakeritik, urte ta ia beñtan zeru urdin ederefik! Baña negu beltza datornean ta gauko gau ilun onetan bezela izarregia odei beltz beltzez josirik dagonen, izafen dizdiz politari gureganatzea galeraziaz... baña ez, ez; an zerbait badago, antxe laño-tartean ia galduan izar txuriska bat ageri da. ¡O nere izar txo maite maite ori, nere etxe txiki txuria zure dirdirxoakaz argitzen dezun izar txo zoragari ori! Jaungoikoak ofelaxe urte askotan argi eder lagungari ori eman daizula! (Entzulen aldera bihurturik) Eta oraindik aitaren aztarnik ere ez. Goiz-goizetik aste guttirako erosketak egitera jua eta oraindik ageri ez. Eztet ba uste bidean ezbeharik gertatu lezaiokenik, onera arteko bidetxioak begitxuka etortzeko eran ezagutzen ditu-ta. Eztakit ba zergatikan gau onenbeste berandutzen duan, eta geroago ta bildurago nauka. Bestetan eñra jeisten dancan bere jua-etoñiak egitera, ilunabare-rako beti zuzen osteratzen da; gau beriz ilunabara jua zan eta bai aspalditxo ere baña... Ene zeruko Jaun ofek, guzalduna zeran ezkeru, añen nere aitari lagun egiozu. (Ate-ots aundia) ¿Zarata al da? ¡Aita dator! ¡Ala ere! Eskerak, ene Jaun ori. (Irikitzera dirjua)

- OKE. (Barenean) Azkar iriki.  
JOX. (Gelditiaz) ¡E! ¿Zer da abots ori? ¡Ezta ori nere aita!  
OKE. (Befiro ots egiten du) ¿Ez al dezu entzuten? ¡Azkar irikitzeko!  
JOX. Mending bidea galduta dabilen bat izan leike.  
OKE. (Añapastaka sartzen da) Añanopola ¿Jo altzaude?

## II

JOSETXO ta OKERA, jantzi-pardela bizkañean eta eskuan  
artzai-makila duala

- OKE. Ate ori itxi zazu azkar, ikaragarizko izotza dago-ta. ¡Buff! ¿Zer tan zaude esna garai onetan? ¿Zein bizi zerate emen? ¿Zer izen du etxe onek? ¿Zer dezu ofen arpegi margoloaz egoteko?

- JOX. Nola erantzun eztaikit, ainbeste galdera egiten baitizkidazu. Ernai nago aitaren zai nagolako; makiña bat ofdu badira erira jetxi zala ta oraindik ezta etxeratu.
- OKE. Eta zure aita ¿auntzala al da?
- JOX. Bai jauna.
- OKE. Emengo bide au ¿asko saritua al da?
- JOX. Ez jauna, oso gutxi.
- OKE. Ala ere, ainbestean nabíl (Auek guztiak bilduf lafi itxuran egin beaf dira)
- JOX. (¡Eroa dirudi!)
- OKE. (Iaian eta naiko lafi ibili naiz ba; baña leku onean sartu naizela uste det. Onera eztira etofiko, ezin liteke).
- JOX. (Zer ari da gero ori esaten).
- OKE. (Neuk ere eztaikit nola-nola estutasun arfatik atera nitzan)
- JOX. (Ateruntz auferatuaz) ¡Ene aita!
- OKE. (¡Idean bereganatuaz) ¿Zer tara zuaz?
- JOX. Ni... ni... ezeftara ez; baña zuk inondik ere zer bait ba-  
dezu; etzaude zeure onean. Bilduf antzean zaude baña  
eztaikit zer gatikan, nigatik beñepein eztala ongi dakizu-ta.
- OKE. Ara, entzun ondo, ala onduena ere aterako zera-ta. Bai-  
din aita etofitzen bada, atea iriki; baña beste garau bateri  
ez. ¿Entzun aldezu?
- JOX. ¿Bilduf altzera bada?
- OKE. ¿Bildura ala nik? (Bere burua bildufkaitz egfn nairik) ¿Lotsa-  
razi nai alnazu? ¿Ez aldirazu ofdea begitan eta izketan  
igaftzen bildurik eztaukatena? (Pardela lufean uzten du ta  
Joxetxo'ri eskutik eldu ta ikuslien ondora ekartzen du. Joxetxo be-  
re aotik zintzilik jaftzen da) Aratsalde batean zan, aratsaldea,  
bai ura sastaña, Otsaleko aratsalde ilun-goibel batean; ni  
bidazti gizajoa, nere atsekabeak bakañik lagun nituala,  
aizmendi batean baruna banijoan, arkaitz ikaragariz josi-  
rik eta leiza neuri guztitako zulataturik zegoan lekutik.  
Uruti samarean aizeak zuaitz artean ateratzen zuan aba-  
rotsa ta naigabezko oiuen antzeko burunda besterik etzan  
entzuten. Al nuan bezin arin ibiliaz, ustegabeko leiza ta  
aitzulo galantak igarotzen nituan batean eta bestean, eta  
amaika aldiz esku-makilaren beaña izan nuan nere buruari

zutik eusteko aizekada latz-gogorfen aurrean. Nekaturik eta len baño abi gutxiogaz noala, oru izugarri bat entzuten det ber bertan. Nunbaitean zauritutako basaurde aundi batena zan; tximistaka zuzen-zuzenean neregana zetorfen, ni aurreneko ortzakadan amaika puska egiteko ustean. ¿Eskutur mardul au ikusten aldezu? ¿Burrizko zain oiek baldakuskizu? Ba nik alako estutasun artan ez-takit zer egingo ez nuan. Eriozko amoño biziak nere beso mardul auek indartu zituan eta bere ao gorri lefdetsu ura egun puska egiteko zorian jari nituan. Alegin guztian tximista baño azkarago bazetorfen mutur ots bildurgarriagaz, begiak txingariturik eta pitza ta apaña bidean zeriola; ni ere makila eskuan nuala jari nitzan bere zai onak lufean ondo zaildurik; ala uferatu zanean *drauk* bota zan neregana, ni auts biurtzeko ustean; nik ere zaitu nuan eta orduantxe eskumakilaren burrizko erzagaz eman nion egundo alako zartada izugarria buru-buruan eta muñak ixurias zeraldo erori zan nere onetan. ¿Noizbait ikusi aldezu zein efaz uxokumea erortzen dan begi-zolidun eiztari batek paunkadagaz zauritzen duanean? (lasai-lasai ziria sartuaz). Alaxe ba, berdin berdin erori zan ankazgora, begiñiñiak zabal-zabalik zituala, ta bere mingain odoldua nere onen gañean gelditu zan. (Joxetxo'ri begira egoten da piska batean, pafe algarari eusten dio ifipañezka ta atzea emanaz, su ondora juten da aulkian exetzer. Ixitalditxo).

JOX. (Ezta gizon makala auxe).

OKE. (Bildurtia naizenik eztu orain esango) (Ixitalditxo) Baña ¿zer gogorapenetan zaude onen ixilik? ¿Mintzatzen aztu egin altzaizu?

JOX. Eztakit zer deten Jain arigaria da izan ere nere aitaren gauko etorera au! Egundaño beste onenbeste eztu egin. ¿Erbesteara altzera?

OKE. Bai, alaxe naiz, baña nunna bizitzen naiz. Nundik nato-  
ren bakañik jakiten det eta nora nuanik beñerez.

JOX. Eta bidean ¿gizasemerik ikusi aldezu?

OKE. Ezta iñofixore.

JOX. Eztakit ba zer izan dezaken onen berandu etortzeko.

- OKE. ¿Onen atzera ez alda egundo etortzen?
- JOX. Ezta bein bakañik ere.
- OKE. Eta ¿bilduñ altzera?
- JOX. Gauñ bai beintzat.
- OKE. ¿Zeren bilduñ zera bada?
- JOX. Neuk ere eztaikit, baña bilduñ naiz. Or beko eri koxkor oñetara, aste guztirako salerosketak egitera juaten danean, beti goiz-goizetik jeisten da; gauñ ere bestetan bezela irten da baña oraindik ezta etoñi. Gañera egun auetan gogorapen samññen batzuekaz goibel-goibel eta buruausten zebilela somatu det. Neuk jakin detañez, len nere aita ez omen zan auntzaia ta auferantzean ere ez omen zan izango onenean, baña nere ama iltzanean bere burua zearo estutu omen zuan eta ango bizitzaz betiko gogaiturik onera etoñi omen zan, baretasun eta ezialdi obean bizitzeagatik. Bere ames ederñnak aztutzeko, leku auxe izan da beretzat egokiena. Baña urte asko dira ja-soera auek gerñtatu zirala, ni ume txikia arñean nitzala.
- OKE. Eta ¿aitak noiz edo noiz gerñtaera auenkiko itzegin aldizu?
- JOX. Ez jauna, ezta aitatu ere. Gogorapen oien bidez aldi samin eta mingarñtsuak igarotzen ditu; baña beti bere baitan eramaten ditu.
- OKE. Arñgarñia da benetan orixe... Eztet lokatz gutxi-gutxi ere bildu soñean.
- JOX. Emen bañura sartu ta aldatu zaitez nai badezu.
- OKE. Ori da, orixe egingo det.
- JOX. Pixka batean zaude, bereala arñgia piztuko dizut-eta. (Bilduñ-ñra daukala igarñtzeko eran piztutzen du)
- OKE. ¡Arñanoa! Ori da bilduñ, ori.
- JOX. ¡Auñeneko aldiz etxeratu gabe garai auetan! Tori. (Arñgia pizturik ematen dio. Okefa jantzi-pañdela eskuan duala eskubi aldeko gelara sartzen da).

III

JOXETXO, ta gero ERAMUN

- JOX. Gizon orok ez nai aŕen, laisterbideruntz begiratzera iften egingo naiz. (Gelditurik) Baña oso zoŕotz esan dit, aitari bakar-bakarrik atea irikitzeŕo. ¿Zein besterik, ordea, garai onetan etoŕi leike onera? Dana dala, ni beñepein bideruntz begiratzera nua. (Atea irikitzeŕa dijuala atearen danbadaŕa entzutea da).
- ERA. (Baranean) Iriki.
- JOX. (Alaikiro) Aita da; eskeŕak, ene zeruko Jauŕi ori, nere eskari biotzeŕoari nai bezela erantzun diozulako. Banatof aita, bereala natof.
- ERA. Azkar iriki, otzak ilbearean nago ta. (Joxetxo'k atea irikitzen du ta Eraman eskuan parŕel bat janez betea duala saŕtzen da)
- JOX. ¡Aita! ¿Nola onen berandu?
- ERA. Egundo ez bezin berandu Joxetxo. Izan ere bat ezpada beste saŕtzen da beti, ustegabeko egonaldiak eragiteko ta.
- JOX. ¡Bilduf bat euki det, of bidean edo nunbaitean okereŕen bat, ezbeareŕen bat geŕtatu ote zaiolakoan...!
- ERA. Ez Joxetxo, ez kutun ori; ezeŕtxoren okerik etzait geŕtatu. ¿Asko bildufu altzera?
- JOX. Ez aita, pixka bat. Gizon bat ere badegu gauŕ etxean.
- ERA. ¿Noŕ ote da gauŕ aŕatsean dagon egualdiaz gurera etoŕtzeŕo gogoa izan duan ori?
- JOX. Eztakit baña bidea galduta dabilen bidaztiren bat dala uste det.
- ERA. Orduan ezta ezeŕ; ofela mendian dabiltzanak noiznai emen izaten dira. Eta ¿nun dago?
- JOX. Gela oŕetan, lokatzeŕ betterik etoŕi da.
- ERA. Eta ¿zeŕtara saŕtu da?
- JOX. Jantzia aldatzera.
- ERA. Ondo da; ta bixigafi pixkan bat eskeñiko zenion ba.
- JOX. Ezta ezeŕtxo ere aita; baña baŕkatu. Aŕenean eskein-



- tzeko asmoan asi naiz baña lafitasun bat bazeukan... eta gañera arpegi izutuago bategaz etofi da...
- ERA. Ala ere gaizki egin dezu Joxeixo; ongi dakizu, zure aita onera etofitzen diranentzat ofelakoa ezta! Geu ere beartsuak gera, ezin ukatu, ta ofegatik gutxi izaten da guk eskeñitakoa baña ura bai gogoz eta maitasunez. Otzak kuxkuriturik nago ta su ondora nua beroan saftzeko. Biretan ibiltzeko oso giro txara dago. (Su ondoko aukian exeritzen da).
- JOX. ¿Zer beri efi aldetik, aita?
- ERA. ¿Erian? Zearo izuturi; eta guztiak efnairik daude. Gauñ goizean egun argitzean espetxezañak gutxiene uste zuten taftean lapur batek iges egin omen du giltzapetik eta efi ofetako bideari ekin omen dio; pizfi ederen bat badala uste det. Zaldunzaiak of dabilta goiak eta beak joaz bere bila. Batzuek, mendi onetako bidean goruntza jo duala dasate... ee... (bat-batean zutik jaftzen da, beldur antzean Okeña dagon gelara begiratuaz) ¿Gizon bat esan aldezu? eta... ez, ez... Jaungoikoak nazala nik ofelako gogorapen okeñai jaramonik ez egiteko. (Ixilaldi luzetxo. Gero bereketan ari balitz bezela) Ura gaua... ene... ura gau goibel eta zoritxarez betea, nere itxaropen gozo ta atsegin guztiguztien gau ondatzalea. Beti-betiko zauri samintsua iriki zenidan gau goñi zorigabea. Beti, bai, beti ni nafzen arftean nere gogoan egongo zera. Ain zuzen gauñ dira amalau ufte. ¡Jauna! ¡nola aztuko zait bada!
- JOX. (Naigabez) (Beti bere biotzeko ituntasuna ageri zaio bere arpegi margoloan. Beti ixilikako zerbaitzuekaz ajeka ta egundo argiro ezeñ aitatu ere gabe). ¡Aita! ¿miñez al-tzaude?
- ERA. ¿Zer bada, seme?
- JOX. Eztakit ba, ilun zaude-ta.
- ERA. Zoriontsua benetan, naigabe ta samintasunen eru gañatzak arpegi bigun-poliit ofetan oroipen itunik utzi eztizuten enetxo ori. ¿Zer auferatuko dezu ofdea, nik auek zuri esanaz?
- JOX. Eztakit, aita; baña beti burua makuñturik ikusten det, go-

goratzen eta gogoratzen onezkero zuzendu ezin dan bezelako zerbait; nik eztiot igartzen zer dan baña bai oso samintsua dala ta oregatik ez jakite onek, berofi dakinak baño geiago garazten dit biotza. Nai gabea askoren artean zabaldu ezkerero, asko arintzen omen da; beraz atsekabe samin ori bion artean eraman dezagun, Jaungoikoak pozez dagonakin pozteko ta erukariakin kupiratzeko biotza eman ditan ezkerero. Badakit, antzematen diot, nere amagatik dala, baña urte asko dira bera iltzala ta onezkero aztu ez-pazaio ere beñepein uste det beraren oroimen goibela eztala garaztasun oien zioa izango.

ERA. ¿Aztu neri? ez, seme, ez. Orenbesteko zoritxara inola ere ezin aztu.

JOX. Badakit, aita; baña nik egi-egiaz somatzen det ixiltasun arigari oretan, zerbait oso negargrafia badagola, nere orain arteko ziriketa ta jakin nai egaritsuak aitoftuazi ezin izan duena. ¿Zerगतik ordea nauka ofela? ¿Zer dala ta ezti esan nai nere amaren izapenari dagokion zera ori, ixilpeko ori? Au nik esan azen, aita; baldin nere galdera auk ezbearekoak badira, beroren ixiltasun minkaitz ori ongaritzat aftuko det.

ERA. Zure itz auk, ene seme maitea, agertzen dute argi argi zure bulaf xamurean biotz bat guzizkoa bizirik dagola. (Ixilalditxo baten ondorean.) ¡Bai, oraingoan bai jakin bear dezu, zure begiai oren gazterik negafa ez emateagatik gauf arte ixilik euki detana! Eta gauf betetzen dan ezkerero zure ama zanaren jene bildotx gaxoa! amalaugaren urtemuga negargrafia, bere eriotzako geftaera, guzti-guztiak aitoftuko dizkitzut, emendik aufera zuk ama zanaren izen laztana gogoratuaz Jaungoikoari opari ta otoitz bigunak maiz eskeñi dizkazuntzat. Exeri zaitez, Joxetxo, atoz nere aldamera; exeri ementxe, nere biotz ori. (Efamun jarleku batean exeritzen da, ageftokiaren erdian, baira Joxetxo ere, aitararen oin ondoan aulkia jaririk eta eskuak aitararen belaun-gañetan ditula. Au guztia al dan xamurtasun eta biotz zanzkada beroenaz egin bear da. Bitafte onetan Okefa'k irikitzen du atea).

IV

LENGOAK eta OKEA atean

- OKE. (Begiratuaz) ¡Oi! ¡gizon bat! ¿Auntzaia ote da? ¿Nigatik ari ote dira? Baezpadan ere entzuten egongo naiz. (Bertan gelditzen da)
- EKA. Egundaño etzaizkit aztutzen, ez ene maite, nere pozaren eta zure biotzeko ama gaxoaren eriotzako ixtilu gogor-gorriak. ¿Nola aztuko zait ba ene... nere bizitzako galera-rik biziena ta lañena izan baitzan? Beti begien aurrean daukat arpegiz-arpegi; berak laguntzen dit bizitza onetan, eta berak adoretzen nau; ta bere gogorapen estuak biotza zulatzen badit ere, zorigaiztokoa ni, bera aztuko banuke. Askotan, bai, oso askotan zure ezpain garbi kutun oiek aitatzen dute zure amaren izen goxoa, eriotzako orduan zure musu argi-eder oretan azkeneko aldiz bere ezpain eztsuak atsedentzeko pozkida uraxe ere izan etzuten, ama gaxoaren izena. ¡Estualdi gorri, lañi ta neurfigabea izantzan uraxe gogotik! ¡Nola aztu ordea nere biotzaren asegarri gaxo ura! Askotan galdetu oi dirazu zuk, nolakoa zan... Zintzoa bai ura, Joxetxo, inon zintzorik bazan; guztiai on besterik egiten etzekian alakoa zan. Gazte-gaztetatik onean oitu zan eta orregatik beti garbia, xamurra ta alai izantzan. Etzuan inorentzat egundaño bekozirik, eta beti bere arpegi ederean margozturik zeukan barètasuna. Jetxi ta zuaz nai badezu len alkafeekin bizi giñan baseñi artara, gure lengo moroiari galdetu zaiezu, nolakoa zan zure ama zana. Erdi-negatez eta ilun dauden eskalari ere galdetu zaiezu. Ona zan gaxoa—erantzungo dizute azkar asko—ona zan ezin geiago; lur-bira guztian etzegoan arek aña nai giñunik; baña Jaungoikoa'k leku oberrako aukeratua zeukan. Jaungoikoa'k etzuan egin Eduñe zana gurekin luzaroan bizitzeko eta... badakizu... iltzan... ¡zeñek zesakean! Gizon madarikatu erañe baten sastaka-

- pean, odol usturik gelditu zan gaxoa. (Okefa ezin egonik batera ta bestera begira. Joxetxo bat-batean zutitzen da)
- JOX. ¡Ene ba! ¿Nere ama?
- ERÁ. Bai, zeure ama.
- JOX. ¿Zein izantzan gaizto, biotzustel, madarikatu ura?
- ERÁ. Etzan bere aztarrik inon arkitu. Alegiña egin genduan bere bila baño alpeñik. (Joxetxo exeritzen da) libelza'ko arats ilun-ilun batean zan. ¡Gaurko egunez gañera, ama-lau urte!
- OKE. (Ikaraz) (¡Ene Miren erugabea!)
- ERÁ. Baseña zegoan bezela zabal-zabalik utzita, eriruntz irten nitzan laisterka. Ama maitea oian zegoan makalik. Nola-bait sendalaria bilatu nuan; baño osterá ununtzean netofela, mendi-oñeko aldapan izerdi-patzetan nere zai zegoan moñoi bat arkitu nuan. Arpegia goibel eta begiak malkoz usturik ikusi nizekonean, zearo izutu nitzan. Zerbaít esan naian asi eta... beláunak darádean asi zitzaizkan, ukatu zioen... eta min-eginda luñera erori zan luze-luze.
- OKE. (Len bezela) (¡Ai ene! ¡Kezka oiek nere barungo ararenak berak dira!)
- JOX. ¿Zer zuten ordea?
- ERÁ. Zearo izuturik eta laritasunez leñtu-beádean, Eduñe'ri deadañka alegin guztian asi nitzan, ainbat laisteren beragana eldu naian, eta ¡ai batalare... jene!... nere pozak betiko amaitu ziran! ¡Azkeneko arnasetan zegoan! (Pitiñ batean ixilik dagoke atsekabez beterik). Andik pixka batera iltzan ama gaxoa. (Joxetxo negáñez asten da antzirik gabe) Ilunaren laguntzaz laisterbidetik etofita, nunbaiteko gizon sápo-erale bat sartu zan etxera ta gure kopetako izerdiagaz auferatutako irabaziak lapurtzeagatik, galdu zuan nere osasuna, nere itxaropen edefa, nere... bizitzaren bizia.
- OKE. (¡Ai ene bada!)
- ERÁ. Alaxe, Joxetxo; ondo gogoan daukat oraindik. Buñi-zofotz odoldua an zegoan ama ilberñaren ondoan odol epe-laren kea arñean zuala. Ofelako azkena izan zuanean nere zori zalantzatsuak nere bizitzako urte goibelak begian aúfetik bat-batean igaro zitzaizkidan. Berealaxe bu-



- ÉRA. ¿Nabaitzen aldezu orain zerगतik oren berandu etxeratu naizen, Joxetxo?
- JOX. Bai, amarentzat otoi egiten egon dalako.
- ÉRA. Orixen da, afezkero nere gozamen laburen artean, atseginik xamufena. Tira Joxetxo, berandu da, gaua aufera dijua ta gure ostazale ori onenean lotan dagoke.
- JOX. Jantzia aldatzera bakañik sañtu da. ¡Ain lokaztua izan ere zetofen!
- ÉRA. Eta ¿baldin biar goiz-goizetik abitu bear baluke ta biar ko bide oso luzeari beñiro ekiteko oso nekaturik badago? Eztezagun esnatu, egualdi latz onegaz mendi auen baruna ibili bearaz naiko lan badauka ta Amaika aldiz ni ibili naiz baña gogofa ta neketsua da benetan.
- JOX. Orduan bere gelara ez gera sañtuko ta ofela berak gura duan arte lasai lo egingo du.
- ÉRA. Bai orixe. Guk ementxe su ondoan jañirik edeñki gaua igaroko degu. Tira, zure aulkia inguratu zazu su ondora. (Biar exeritzen dira) Ni gauak eñnai igarotzen oitua nago. Ainbeste bideñ igaro ezkeru, oitu bear alegia.

## V

### LENGOAK eta OKEÑA beste galtzak jantzita

- OKE. Jaungoikoa'k dizutela gau on.
- ÉRA. (Oso abegi onaz) Bai zuri ere. (Aita-semeak zñtizen dira) ¿Ez altzera lotaratu?
- OKE. (Mingoztasunez beterik) ¿Ni lotaratu? ¿Nola lo egin ofdea? ¿Begirik itxiko alnuka ba? Buru guztia kezka egosirik daukat, nere baitan neronen burua estutu ta estutu besterik egiten ezdetala. Amesetako mamoroak bezela, kezka oiek beti erasotzen eta biraka dabilzkit, guztiak zirika ta algaraka gelditu gabe. (Aita-semeak ariturik daude) Eroaldian ageñtzen diran irudiak eztira; oraintxe ere badaduszkit eta bere bekotz asafeak, burua makuñ-makuñ eukitzera beañtzen naute.

- ERÁ. Baña gizona ¿zoraturik altzaude? ¿Zer diozu órdea?
- OKE. Erotuta ez; eroturik gauñ artean egongo nitzan; nere ezaguerak berandugi bada ere nabaitzen du orain artean itsururik, zearo lausoturik bizi izan naizela... bai, orain ezagutzen det nabarmen bat, sapo, dolor, zantaf bat izan naizela. (Samintasunez) ¡Auntzaia. ! ¡Zerbait esan bear dizut! ¡Zure aurrean auzpeztu nai det! ¡Entzun nazazu, afen! ¡Afen, zorigaizdun onen eruki izan zaitez! (Eskuakaz arpegia estaltzen du)
- ERÁ. Joxetxo.
- JOX. ¿Zer, aita?
- ERÁ. Zuaz lotara gela oretara.
- JOX. Bai aita; eskua. (Aitak eskua luzatzen dio ta semeak bere eskubiko eskuagaz aitarénean gurutzea egin eta gero muin egitea dio ta gelaruntz diraa) Agur, Jaungoikoa'k diela gau on.
- ERÁ. Baita zuri ere, Josetxo. Amarentzat otoitz egitea ez aztu.
- JOX. Egingo det, aita.

## VI

### ERÁMUN eta OKERÁ

- ERÁ. (Ixilunetxo batea ondoren) Eskuarétean zer dakartzun antzik eztizut ematen eta ezér aitatu baño len zein zeran jakin nai nuke, zure izaera onek ariturik nauka-ta.
- OKE. ¡A nere Jaun ori! ¡Nere sorbide itzal-ilunaren argia arkitzeagarik, egi-egitan zeure aurrean nagon bezela, nere bizitzaren ari osoa emango nuke! ¿Zein naizen? ¡Neuk aldakit! ¿Nun jaió nitzan? ¡Ai jakingo banu! Zakařetara ta zikiñarřera botatako ia mendu gabeko azia erne ta azitzen dan bezelaxe ni ere azi nitzan. Baña zakař eta zikin-keri arřeko landaretxoak nolabait zikinpetik bere burua txukun ateratzeko bidea egiten du, baña ni maxkař eta zikiñez betea erne nitzan eta orřela-orřela azkenean etsi ta lasaikeri ta grina txarřetara jo nuan. (Atsekabe minkaitzez) ¡Zerřatik gero gizadia arřitzen da, lurřiran orřenbeste do-

lofkeri ikustean! ¡Nere amaren musu ta laztanik ezpaitet gozartu! ¡Zorionekoa a marekin Jaunaren aurrean otoi egiten ikasirik, bere maite-gura sutsua gañezka bezela ikusi duana! ¡Zorionekoa bai, eskale beaftsua izan afen ere, bide on eta zuzenaren beñi jakin eta berari jaraitzen diona! Nere estualdi arñan eskurik etziran iñofñok ere luzatu, ez nere nekeak laburtzeko, ezta nere naigabe samiañak arintzeko ere. Ain zorigaitz estuan negoala, amaika negañ eta atsekabe gañatz eraman nuan, baña onetan-onetan biotza gogofñu zitzaitan eta edozerñarako ajoinik gabea egin nitzan. Mendiko pizti gaizto, arapatzañe, basatañen antzera asi nitzan, zerurik eta olakorik zanik ere egundo entzun gabe. Eta gizon suge, maltzuñ, doñora izan nitzan. ¡Zer egingo ba, ene Jaun ori, besterik ezpaitziren erakutsi! Geroago etxe utzañe, lapuñ, erañe ta gaiztakeri guztietan buru izan nitzan. ¿Zein naizen? ¡Aldakit! Baldin ni ezer banaiz... orixe ¡espetxetañ bat! (presidiario)

ERA. (Txanditurik begiratzen dio) ¡A!... bai, bai, oraintxe korapilua askatzen det; zu ¿or bilatzen dabiltzan ori izango zera?

OKE. Bai, ala naiz. Baña ¡afen efuki nazazu! ¡Afen ez nazazu salatu! ¡Zenbat naigabe gañatz giltzape zañ arñan eraman detan urte auetan bazeneki, ikaraturik geldituko ziañake! Azkenean urolde asañeak ofuka baztañ guztiak jo ta menderatzen dituan bezelaxe, nik ere, gauñ goizean giltzapeko kate zañak etenik iges egin det. Mendian galduta otzez kuzkuñturik eta beti atzera bilduñez begiraka nabiañela, zure etxeraño nolabait eldu naiz, bizirik baña ildakoaren antz geiañoz. (Beroturik) ¡Eztet neronen burua zukuturik utzi nai! ¡Doñora, likitza, zimuña ta geiañoz ere izango naiz, baña ez koldañ aula! ¡Ori ez, auntaia! ¡Zure laguntza beañean añkitzen naiz, auntaia...! ¡Kemendu nazazu! (Beroan) ¡Gaua ementxe igaro nai nuke, zuen añdurapean; gaberako ostatua zoñ zait.

ERA. Eskubidea dezu, eskubide deuna. Gure ostazale, gure anaia zera; gurean zauden arñean iñoren bilduñrik gabe zenegoke. Nere etxera datoñenak jakaña dauka, nere



eskuak beti zabalik dauzkala. ¿Eztet bada zurekin beste ainbeste egingo, oren apalkiro eskatzen didazun ezkeror?

OKE. ¡Eskeřikasko, eskeřikasko nere auntzai orri!

ERA. Orain arıtean zoritxareř' josirik ibili zerala ongi dakust, bařa alare dakusdaneř biotř zuzen-zalea zera beřepein.

OKE. (Biotřaren sakonetik) Gaztetasun eřer gařbira biurřu albanıteke nere nai utzez bakařik; nere bizkařeko urře auek gutxitu albanezazke beřiro bizitzeko, egi-egitan dasatzut, auntzaia, (Ařeneka belan bat luřean duala jařtzen da) nere begien arđiaren auřen aitořtzen dıřut, zure ořnetan auzpeřturik eta malřoak ixuriaz ez niřuzukela ikusiko. (Ixiřaldi izpi baten ondoren jeikitzen da) Bařa nik esan beař bat daukat, erđiegosten eta usteldu beařean naukana.

ERA. (Uleřta gabe) Ez bildurřik euki; nere etxean leku ezin obean zaude-ta.

OKE. (Bereketan txındurřiturik) ¡Bařa au azka egon beařa, xomořo salatzaile onek! (Azkeneko itzakın batera atean bi danbadaka gogor eta ataritik egındako deia eutzuten dira. Biak ikaraturik ateari begira gelditzen dira. Une arřtan beřtan Joxeta xıřtetzen da)

## VII

### LENGOAK eta JOXETXO

JOX. ¡Aita! ¡Zuzendariak datoz!

UDAL. (Bařenean) ¡Bide' zuzendariak!

JOX. ¿Ikusten aldu?

ERA. (Okeřa'ri) Zu ezkutatu zaite... ¡Tira azkař! (Okeřa'k atera begira geldi-geldi irauten da) Bařa ¿zeř egiten dezu orř? (Beřiro otsegiten dute) ¿Ezaldezu orřdea zuregana datozela ikusten? ¿Ezaldezu deia entzuten?

OKE. Bai, entzuten det; bařa ni emen bilatzen banaute biok eramango gaituzte. (Auek guřtiak aģeřkera onen amaiera arřte erđi abotsean eta erđi zoraturik) ¡Ez oraingoan eztezu zeurea egingo! Gařnera ¡bazeneki zein naizen ni! ¡Ez, ez, iřola ere ez...! ¡Banua! (Abituaz)

- ERÁ. ¡Ene..! ¿Zu juan? ¡Ez emendik! (Eutsitzen dio)
- JOX. ¿Zer dabilta órdea auk?
- UDAL. (Delika. Bafenean) ¡Atea irauliko degula!
- ERÁ. ¡Lan edefa daukazute órregatik, gure etxean sartu nai badezute! (Okefa'ri) Onera etofí zera, laguntza eskean; eta zorain nik zuri estutasun onetan laguntza ukatu? ¿Nun utzitzen dezu nere omen eta izena? Orain arteko zure bizikera txafa damutasunez beterik aitoftu dezu, eta zorain beftiro zeure burua oien eskuetan jaftzeko zaude? ¡Ez, órrelakorik eztu ikusiko Efamun auntzaiak! ¡Zeure aurfetik eraman beaftko naute!
- OKE. (Biotzildurik) ¿Zu espetxetaft zantaft au baño lenago? Ez, ori ez. Oraintxe ikusiko degu utzitzen dirazun ala ez. ¡Tira, oroimenki oneri begira zaiozu...! (Bulafetik oroimenkia ateratzen du Efamun jo ta lo gelditzen da ura ikustean, bere burua eskuakaz sakatuaz eta itzik gabe. Une onetan gogof deika asten dira ta bafundik ots aundiak entzuten dira)
- ERÁ. ¡Ene ba! ¿Zer... zeri begira nago?
- JOX. Baña ¿zer dabilta órdea auk?
- ERÁ. ¡Ai ene ba! ¿Egia ote da? ¿Zu órdea erafe ura?
- OKE. (Itun-itun) ¡¡Neu izan nitzan!! (Negafez. Larfaldi ta ixilunetxo)
- ERÁ. (Antziaz) ¡Ez, ezta ezeftgantikan ere, etzera aterako. Tira, sartu zaitez azkaft... (Eskubi-aldeko gelara eraman eta an itxita utzitzen du) ¡Ni eroa naiz, zoraturik nago! Iriki zazu Joxetxo, garaia da-ta. (Begiak bat-batean legoftzen ditu)
- JOX. Bai, aita, banua. (Atariko atea irikitzen du)

## VIII

ERÁMUN, JOXETXO, UDALBURUA eta bi gizon soka lodi banakin

- ERÁ. Aurera gizonak.
- UDAL. Bada órdua, bada órdua.
- ERÁ. Baftkatu aldi luzetxoan itxonazi baditzutegu. Órelaxe eukitzerik neuk ere ez nuan naft baño, dakizuten bezela, garai auk ere eztira egokienak órrela ibiltzeko ta órrega-

tik onenbeste berandutu det. Joxetxo, jarleku batzuek ekañ ditzazu.

UDAL. Ez, eskañkasko, eztegu nai.

EÑA. Eta zere gertatzen da ba, zuen baimena arturik, garai auetan zuek onera etortzeko?

UDAL. Gizon zantar batek giltzapetik iges-egin du ta oneruntz jo duala esan digute ta eguañditik onera bere bila gabiltza, ora.

EÑA. Eta zezaldezute añkitu?

UDAL. Ez alegia, bere aztarnen atzetik gabiltza-ta. Norbaitek, añgibide zuzen-samañak emanaz, esan digu gauñ iluntzean, mendi onetan leiza zulo asko daudela ta onenean alakoren batean eskutatuko zala ta Eñamun auntzaia ikusi izatea ere baleikela, ta ofegatik itxu-itxuan etori gera. Bañkatu garai txañean eldu-bagera.

EÑA. Eztizut nik bañkatu beañik, alkate jaun ori; nik beañ det, nik, zure eskutik bañkamena, txango luzetxoan zai euki zaituztedalako. Gauñ eñian izan naiz eta berandu-xamañ etxeratu naiz; baña eixera añteko bide ta zugazpetan eztet iñortxo ere ikusi. Eñian alegia, batenbatek espetxetik iges-egin dula edo olako zerbait entzun det, baña eznaiz batere jakiten lelatu. Baldin nere etxeko susmorik badezute, alde guztiak irikirik daude...

UDAL. Zebañ zere diozu, gizon ori? Olakorik ezta bururatu ere.

EÑA. Orduan, zeuek gura dezutena egin ba. Tira Joxetxo, ardo pixka bat atera zazu beroan sañtzeko.

UDAL. Ez, ez, eskañkasko auntzaia; eztegu ezere beañ.

EÑA. Tira, tira, udalburu jauna, zerbait artu, eñia uruti samar dago-ta.

UDAL. Etzaigu ajola; guazemazute, mutilak, (sokadun mutilai) lasai lo egitera, bñar goizetik beñiro bastañak azteñizeko, onezkero alpeñik izango dek baño.

EÑA. Zala izango da onezkero, bai.

UDAL. Agur ba Eñamun; Jaungoikoa k dizutela gau on.

EÑA. Agur, baita zuei ere. (Udalburua bere lagunakin juaten da. Eñamun pixka batean berai begira gelditzen da.) ¡Aldegin dute! (Eskubiko gelara juan eta Okeñari atea irikitzen dio)

IX

ÉRAMUN, JOXETXO ta OKERA

- ÉRA. (Atetik beřtatik) Gaizkaturik, libre zaude; onera irten zaite. (Okeřa zearo biořberaturik ateratzen da ta bere burua Éřamun'en beso-gańean jařtzen du berari besařkatnaz) ¡Nere itza bete det!
- OKE. ¡Nere orain ařteko zantařkeri beltzen gogorapenak nere biotzean nolako zauri samińa iriki duten bazeneki! Ez, nere biotzaren estutasun eta egařbera minkatz au ez tet ixildu ta estali nai .. ¡Ene zeruko jaun ori, nere okeřkeri zabař auek aztu itzazu! ¡Ařen obendari (pekatari) onen eřuki izan ezazu!
- ÉRA. (Jauřkiturik) Len damuturik ikusi zaitudalako, zu estutasun ofetatik ateratzea izan da nere guramena. Zure okeřkeriak zeure damutasunakin bařkatzen zaizkitzu. Jesu-kristo'k bere azkeneko ařnasetan guztioi azketsi zigun eta ori Jaungoiko guzialduna zalarik; řeta nik eřtizut bada azketsiko? Azkatasuna berealaxe dezu zeurekin. Aberiaren muga of beřtan dago, ta berealaxe zera beste aldetik.
- OKE. řAtzeřiko luřak uřean daudela?
- ÉRA. Bai, bidetxi of au galdu gabe zuaz auřera (ezkeřaldea erakutsiaz) ta aldapa ori jetxita auřki zera atzeřiko luřetan.
- OKE. (Joxetxo'k ekaři ta bere eskutatik Okeřa'k bere pařdela ařtzen du. Gero atariko ate zabal-zabalik dagonetik) Azkenean nere ařaren kezka aienatu ta baretu dira. Agur beřiko, ene auntzai maite-zindo ori; auřerantzean atzeřian biziko naiz eta nere orain ařteko gaiztakeri zoroen zigortzat eřbestean ilko naiz. Eta nere egun zařkilen oroimenki au, nere bulařean beti orđutikan zintzilik erabili detan au (oroimenkia ateratzen du) zuk erabili beař dezu (Éřamun'i) zurea data. (Éřamun'ek ařtu ta muin egiten dio) ¡Nik ere nere estulařietan muin egiten nion! Zure bizitzan ikaragařizko zauria iriki nuan: onezkero ezin leike itxi.. ¡neuk daukat nik naigaberik aundiena! Bańa nere biotzean batere zindota-

sunik badago, bere bidez aitoftzen dizut, egunero berarentzat otoi egingo detela. (Biotz-biotzez eta itun-itun) Bere irudi deuntsua neure obiraño beti gogoan eukiko det, ofela eraillkeri goñi aren efu beltza saritzeko, ta nere bidea, zure biotz leial-zindoa izango da ¡nere eriotzako azken-arnasa arte! Agur.

EÑA. Agur. (izker aldera juaten da. Biak berari begira gelditzen dira ta andik pixka batera Joxetxo eskuakaz arpegia estaldurik eta negahez osteratzen da, ta aitak ofduan Joxetxo besarkatu ta estutuaz esaten du) ¡Ene Joxetxo! ¡Zu beste pozik ezta neretzat ludi onetan gelditzen...!

## Z A P I A





# EUSKALERRIAREN ALDE

---

La Revista EUSKALERRIAREN ALDE se titula «Revista de cultura vasca» y esa frase compendia la idea que perseguimos y las esperanzas que abrigamos. Se ocupa exclusivamente de asuntos relacionados con el País Vasco; dentro de este campo abarca cuanto no se halle contaminado con la política palpitante.

El esclarecimiento de la historia del País Vasco es uno de nuestros anhelos principales, y a llevar luz sobre tiempos pasados tienden con preferencia nuestros esfuerzos.

Pero no por eso vivimos momificados con la vista vuelta atrás. Tanto como atrás miramos adelante, y si con ahinco muchas veces dirigimos la vista al *ayer*, otras tantas la replegamos al *hoy* y la espaciarnos al *mañana*. Queremos recuerdos, sí, pero también realidades y esperanzas.

Nos compete cuanto se relaciona con la vida de nuestro país: historia, heráldica, arqueología, viajes de extranjeros por Euskalerría, sus opiniones acerca de nuestras cosas, notas literarias, novela, poesía, música, crítica biográfica, bibliografía, arquitectura, pintura, arte dramático.... Y, naturalmente, dedicamos atención especial a la lengua vasca, flor que marchita nos entregaron nuestros antepasados y que procuraremos entregar vivificada a nuestros sucesores.

Cuanto con el País Vasco tenga algo que ver nos interesa grandemente. Fuera de esta esfera de acción, nada nos atrae; dentro de ella nos apartamos respetuosamente tan sólo de los problemas en que las pasiones ciegan y de los asuntos que no es posible rozar sin que salte la chispa odiosa de la discordia.

---

## Euskalerríaren alde

ADMINISTRACIÓN  
Calle de Fuenterrabía, 14, bajo  
SAN SEBASTIÁN

---

El suscriptor de EUSKALERRIAREN ALDE recibe puntualmente en su domicilio todas las secciones de que se compone la Revista; recibirá asimismo los números extraordinarios (1), suplementos, obras encuadernables, y toda publicación que la Revista costee con destino a sus suscriptores. A fin de cada año recibirá también, para cada tomo, detalladísimos índices, redactados por orden de autores y por clasificación de materias.

La suscripción anual en estas favorabilísimas condiciones importa 20 pesetas anuales, que la Administración las cobra por giro de una letra, si el interesado no las ha enviado antes en cualquier otra forma.

---

(1) EUSKALERRIAREN ALDE ha publicado ya cerca de una docena de números extraordinarios, de los cuales varios tienen más de 100 páginas hermosamente ilustradas. Los últimos son los dedicados al Congreso de Pamplona, y merced a esta Revista, sus suscriptores disponen de una síntesis exacta de todas las conferencias y cuñillos, de la reproducción literal de todas las conclusiones, y de una amplia relación de cuanto en Pamplona sucedió con motivo del Congreso.

# IZARRA

Antzerki saia = Colección de comedias

## AGERTUAK

- 1.<sup>a</sup> : *Jauregi-erofotako astoa* Alfonso M.<sup>a</sup> Zabala'k asmatutako bakarizketa. (N.<sup>o</sup> 1. Monólogo original de A. M. de Zabala) ..... 0,50
- 2.<sup>a</sup> : *Uruti-izketa*. A. M. Zabala'k idatzitako antzerkia. Atal batekoa, ta gizonetzkoak bakarrik egitekoa. (N.<sup>o</sup> 2. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. M. Zabala) ..... 1,00
- 3.<sup>a</sup> : *Velitona'ren bi senarak* A. M. Zabala'k idatzitako antzerkia. Atal batekoa ta gizonetzkoentzat. (N.<sup>o</sup> 3. Comedia en un acto, para hombres solos, A. M. de Zabala) ..... 1,00
- 4.<sup>a</sup> : *Vendibe'taren larigak* A. Lafaitz'en antzerkia. Atal batekoa, ta gizonetzkoentzat. (N.<sup>o</sup> 4. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. de Larraitz) ..... 1,00
- 5.<sup>a</sup> : *Utzi bea'ko!* Deñoka'tar Goserio'k euskeratutako antzerkia. Gizonetzkoentzat. Atal batean. (N.<sup>o</sup> 5. Comedia en un acto, para hombres, traducida por Goserio de Deñoka) ..... 1,00
- 6.<sup>a</sup> : *Neskame beria* Emakumezkoentzat bakarrik, atal bateko antzerkia. Deñoka'tar Goserio'k euskeratua. (N.<sup>o</sup> 6. *La criada nueva*. Comedia en un acto para mujeres solas, adaptada por G. de Deñoka) 1,00
- 7.<sup>a</sup> : *Gizon bikañak*. Gizonetzkoentzat, atal batean. Deñoka'tar Goserio'k euskeratua. (N.<sup>o</sup> 7. Comedia para hombres, en un acto) . . 1,00
- 8.<sup>a</sup> : *Tripa-Zofia*. Gizonetzkoentzat, atal batean, Toribio Lafea'k eraturako antzerkia. (N.<sup>o</sup> 8. Comedia en un acto para hombres, por Toribio de Lafea) ..... 1,50
- 9.<sup>a</sup> : *Moro'i jatorra*. A. Lafaitz'en antzerkia. Atal batekoa, ta gizonetzkoentzat. (N.<sup>o</sup> 9. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. de Lafaitz)..... 1,00
- 10 : *Gau-ostatua*. Iruretagoyena'tar J.'ren antzerkia. Atal batekoa, ta gizonetzkoentzat. (N.<sup>o</sup> 10. Drama en un acto, para hombres solos, por J. de Iruretagoyena) ..... 1,50

---

**Antzerki oek guziak, Donostia'n, Leizaola'ren idaztitegian (Garibay, 28) daude salgai.**